

ASOZIAZIONISMOAREN BIDEZKO GAZTEEN PARTE

HARTZERAKO GIDA

1. Zer izan beharko nuke kontuan elkarte bat osatu aurretik?

ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK
Diru laguntzak, mailegatutako materialak, gelak etab. eskatzeko aukera Dokumentu ofizialak Erakunde publikoekin harremana Hitzarmenak egiteko aukera	Epeak bete beharra Papeleo ugari Aldaketen erregistroa Tramiteekin zailtasunak eta erantzukizuna

2. Zeintzuk dira elkarte gisa erregistratzeko eman behar diren lehen urratsak?

- Elkarteak **Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean** inskribatu behar dira. Kontuan hartu behar da tramite guztiak telematikoki egiten direla, eta horretarako, **elektronikoki identifikatzeko modu** bat edukitzea nahitaezkoa da

Identifikazio elektronikorako onartutako bitartekoak

BakQ	Izenpe: Herritarraren ziurtagiria	Izenpe: Profesionalentzako ziurtagiria hodeian	NAN elektronikoa	FNMT: Pertsona fisikoaren ziurtagiria
------	---	--	---------------------	--

- Behar den informazio guztia prestatu (ezinbestekoa da dokumentazioa PDF formatuan aurkeztea)
- Inprimakirik egonez gero, bete, eta ordenagailuan gorde
- Azkenik, tramitazio elektronikoa egiteko aplikazioan sartu, tramite bakoitzari dagokion botoiaren bidez. Handik hau guztia egin ahalko duzu:
 - eskabidearen formularioa **bete**
 - sinatutako dokumentuak **erantsi**
 - eskabidea **sinatu**
 - eskabidea eta aurkeztutako dokumentazioa **bidali**

3. Zer agiri aurkeztu behar dira elkarte baten eraketa euskal autonomia erkidegoko elkartearen erregistro orokorrean erregistratzeko?

Eskabidearekin batera **agiri** hauek aurkeztu behar dira:

1.- **ERAKETA-AKTA**, elkartearen osatzen duten pertsona guztiek sinatua

2.- **ESTATUTUAK**, presidentek eta idazkariak orri guztiak sinatuak (bi aldeetatik)

➤ **ERAKETA-AKTAK** honako hauek jasotzeko behar ditu:

1.1.- ELKARTEA SUSTATZEN DUTEN PERTSONA FISIKOAK

- Izen-abizenak
- NANA edo identifikazio-txartela
- Nazionalitatea eta helbidea
- Elkartearen sustatzen duten pertsonen NANaren fotokopia (organo kudeatzaileari ez bazaio baimenik ematen NANA frogatzeko, baieztatzeko edo egiaztatzeko)

1.2. ELKARTEA SUSTATZEN DUTEN PERTSONA JURIDIKOAK

- Izena edo izen soziala
- Erregistro-zenbakia
- Nazionalitatea eta helbidea
- Pertsona juridikoaren ordezkari aritzen den pertsonaren izena, abizenak eta NANaren edo identifikazio-txartelaren zenbakia. Eraketa-aktarekin batera, pertsona juridikoek beren izen juridikoa ziurtatzen duen agiriak aurkeztu behar dute, bai eta organo eskudunak hartutako erabakiaren ziurtagiria ere. Ziurtagiri horretan, pertsona juridikoak elkartearen eratu eta bertan parte hartu nahi duela adieraziko da, eta elkartearen ordezkari izango den pertsona fisikoaren izena emango da.

1.3.- PERTSONA FISIKO ETA JURIDIKOAK

- Elkartea eratzen duten sustatzaileen borondatea eta beren artean egindako itunak, halakorik egin badute.

- Elkartearen izen zehatza, baldintza hauek bete behar dituen:

□ Izenak bat etorri behar du eratze-aktaren lehen akordioarekin eta estatutuen lehen artikuluekin.

□ Izenean nahitaez agertu beharko da "asociación" edo "elkar" hitza.

□ Izenean, agertu behar da, alde batetik, elkartearen helburuei edo helburu nagusiari erreferentzia egiten dion hitz bat edo gehiago, eta, bestetik, izena bereizteko eta beste elkartearen izenekin desberdintzeko termino bat (hitz bat edo batzuk izan daitezke, edo siglak).

Adibideak:

1) OSASUN PUBLIKOA SUSTATZEKO ELKARTEA: Hitz horiek erreferentzia egiten diote elkartearen helburuei edo helburu nagusiari.

OSPUSU ELKARTEA: Hitz horrek elkartearen izena bereizten du.

2) LOREMENDI ELKARTE KULTURALA

KULTURALA: Hitz horrek erreferentzia egiten dio elkartearen helburuei edo helburu nagusiari.

LOREMENDI: Izen propioak elkartearen izena bereizten du.

3) ADEPAS- EAE-KO AUZO-ELKARTEA

AUZO: Hitz horrek erreferentzia egiten dio elkartearen helburuei edo helburu nagusiari.

ADEPAS: Hitz horrek elkartearen izena bereizten du.

- Akta egiletsi den tokia eta eguna, eta pertsona sustatzaileen sinadura, edo horien ordezkariena, sustatzaileak pertsona juridikoak badira.

- Izendatzea: presidentea, idazkaria, diruzaina eta, hala badagokio, gobernuaren kide anitzeko organoa.

➤ **ESTATUTUAK** honako hauek jaso behar ditu:

Gutxienez Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeko 9. Artikuluan adierazitakoak eduki behar dituzte.

Saiatu estatutuak idaztean hizkera ez-sexista erabiltzen, eta gobernu-organoetan gizonezkoen eta emakumezkoen kopurua orekatzen, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezartzen duen bezala.

Ematen dizkiguzun datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko dira: ELKARTEEN ERREGISTRO OROKORREAN. Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza da aipatu erregistroaren titularra (Donostia-San Sebastian kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz), eta haren helburua, Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteak eta elkarten zuzendaritza-batzordeetako kideak erregistratzea, aldez aurretik Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazita, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun neurriak hartuta.